AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

584

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 3koa, Enplegu Publikoko zuzendariarena, zeinaren bidez Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari helarazten baitzaio, dagokion lan-kontratua formalizatzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2023ko azaroaren 6ko aginduaren bidez deitutako enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuan hautatutako pertsonaren izena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2023ko azaroaren 6ko aginduaren bidez, hautaketa-prozesu baten oinarriak iragarri eta onartu ziren sukaldeko laguntzaile plaza bat betetzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko lan-kontratudunen kolektiboentzako hitzarmeneko langile lan-kontratudun finkoak).

IVAPeko zuzendariaren 2025eko urtarrilaren 28ko ebazpenak prozesu horretan behin betiko hautatutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu zuen.

Behin betiko hautatutako pertsonak baldintzak betetzen dituela egiaztatu denez, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari igorri behar zaio hura kontratatzeko proposamena, eta hautatutako pertsonak dagokion lan-kontratua sinatu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari helaraztea Zelaia Soria Morato andrearekin Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen zerbitzurako lan-kontratua formalizatzeko proposamena; kontratu hori Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko sukaldeko laguntzailearen plazari dagokio (kodea: 3731; 1. dotazioa).

Bigarrena.– Hautatutako pertsonak dagokion lan-kontratua sinatu beharko du 2025eko otsailaren 11n.

Ezarritako datan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, lan-kontratua sinatzen ez badu, galdu egingo ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako langile lan-kontratudun finko izateko eskubide guztiak, deialditik eratorriak, hain zuzen.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Enplegu Publikoko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 3a.

Enplegu Publikoko zuzendaria,
NEKANE COBOS SALINAS.